



## Topaketa Birtualen oinarrizko erabilera baldintzak

Bi motatako topaketa birtualak bereizten dira: **irekiak** (herritar guztientzat) eta **mugatuak** (udalerrian erroldatutakoentzat soilik). Topaketa mugatuetan parte hartzeko, ezinbestekoa da plataformako atal pribatuarekin konektatzea, @bizkaia.eu email bat erabiliz.

Topaketa birtualaren aurretik, **aukera dago galderak bidaltzeko**. Galdera horiek gordeta geldituko dira, topaketarako finkatutako hitzorduaren egunean erantzuteko.

Galderetan **ezin daiteke atxiki ez artxiborik ez beste webgune batzuen estekarik**.

Erabiltzaile bakoitzak **nahi adina galdera bidal ditzake**. Galderak ez dira ikusgai egongo, harik eta erantzuten ez diren arte. Alkateak (edo udal ordezkariak) **beretzat gordetzen du galdera bati ez erantzuteko eskubidea**, edo erantzuteko beste bideren bat erabiltzekoa. Era berean, galdera bat behin baino gehiagotan errepikatuz gero, bakarrari erantzunda erantzuntzat joko dira errepikatutako galdera guztiak.

Galdera bati erantzun orduko, elkarrizketa hori "itxita" geldituko da; alegia, erabiltzaileek **ezingo diote erantzunari beste ezer gaineratu**. Xehetasunik eskatu nahi izanez gero, beste galdera bat igorri behar da.



**Galdera desegokiak edo hizkera desegokiz egindakoak ez dira aintzat hartuko, ezta argitara emango ere.**

**Topaketa birtuala webgunean gordeta geldituko da**, zuzenean konektatzerik ez duen edonork ikusi ahal izan ditzan alkatearen (edo udal ordezkariaren) erantzunak; aukerakoa da, nolana ere, argitaratuta uztea, eta topaketa antolatzen duenak erabakiko du topaketa argitaratuta utzi edo ez.

**Topaketa birtuala amaitutakoan, ezingo da beste galderarik egin**, non eta ez den beste deialdi bat egiten aurreragoko beste data baterako.

Segurtasunari eta pribatutasunari buruzko datuen xehetasunak atari honetan bertan argitaratuta daude, eta hemen kontsulta daitezke: Udala Zabaltzen-en baldintza orokorrak.